

## Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

#### Zk-1489

AGINDUA, 2004ko otsailaren 24koa, Kultura sailburuarena, kirol arloko formakuntza jarduerak egiteagatik ordaindu behar diren prezio publikoak finkatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeko 180. artikulua ematen dizkidan ahalmenen indarrez; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ezarritako prezio publikoen bidez ordaindu daitezkeen zerbitzu eta jardunak zehazten dituen uztailaren 21eko 161/1998 Dekretuaren eranskineko 9. paragrafoaren arabera eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak espediente horren aldeko irizpena eman duela kontuan hartuta, honako hau

#### XEDATU DUT:

##### 1. artikulua.— Prezio publikoen zenbatekoak.

Kultura Sailak kirolaren alorrean ematen dituen formakuntza-jardueretako matrikulen prezio publikoak hauek izango dira:

1.1.— Biltzarra. Formakuntza-jarduera honetan, dena delako gaien adituak direnek beren ekarpenen berri ematen dute jendaurrean, komunikazio eta txostenen bitartez.

Matrikularen prezioa kreditu (10 ordu) edo zatiki bakoitzeko: 60 euro.

1.2.— Mintegia. Formakuntza-jarduera honetan, teknika edo zientzia alorreko oso gai zehatzak lantzen dira. Alor horretako espezializatuei zuzenduta dago eta mintegiaren edukia argitaratu egiten da.

Matrikularen prezioa kreditu (10 ordu) edo zatiki bakoitzeko: 30 euro.

1.3 Ikastaroa. Formakuntza-jarduera honetan, ikasleak ebaluatu eta tituluak edo diplomak banatzen dira.

Matrikularen prezioa denontzako blokeetako kreditu (10 ordu) edo zatiki bakoitzeko: 30 euro.

Matrikularen prezioa plaktikaldiko kreditu (10 ordu) edo zatiki bakoitzeko: 3 euro.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

#### Nº-1489

ORDEN de 24 de febrero de 2004, de la Consejera de Cultura, por la que se fijan los precios públicos a satisfacer por la prestación de actividades formativas en materia deportiva.

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 180 de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de acuerdo con el apartado 9 del anexo del Decreto 161/1998, de 21 de julio, por el que se determinan los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos, habiéndose informado favorablemente el expediente correspondiente por el Departamento de Hacienda y Administración Pública,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.— Cuantía de los precios públicos.

Las cuantías de los precios públicos de las matrículas en las actividades formativas en materia deportiva prestadas por el Departamento de Cultura serán las siguientes:

1.1.— Congreso: Actividad formativa en la que expertos en el tema tratado exponen al público sus aportaciones, fundamentada en comunicaciones y ponencias:

Precio de la matrícula por cada crédito (10 horas) o fracción: 60 euros.

1.2.— Seminario: Actividad formativa en la que se trabaja con carácter técnico o científico un tema muy concreto destinado a especialistas en esa área. Incluye la publicación del contenido del tratado.

Precio de la matrícula por cada crédito (10 horas) o fracción: 30 euros.

1.3 Curso: Actividad formativa que incluye la evaluación del alumnado y la entrega de títulos o diplomas:

Precio de la matrícula por cada crédito (10 horas) o fracción correspondientes a los bloques comunes de los cursos: 30 euros.

Precio de la matrícula por cada crédito (10 horas) o fracción correspondientes a los periodos de prácticas de los cursos: 3 euros.

**2. artikulua.**– Zenbatekoa kalkulatzeko era.

Matrikularen prezioa kalkulatzeko, kreditu bakoitzarako ezarritako prezioa ikastaroak dituen kredituen kopuruaz biderkatuko da.

**3. artikulua.**– Hobariak eta gainordainak.

3.1.– Biltzarren kasuan, matrikula jarduera hasi baino 30 egun lehenago egiten dutenei, 20 euroko hobaria egingo zaie kreditu bakoitzean.

3.2.– Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren formakuntza-jardueraren bat gauzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin lankidetzaren hitzarmena sinatu duten entitateen kasuan, entitate horretarako kideei hobari hauek egingo zaizkie:

Biltzarrak: 10 euroko hobaria kreditu bakoitzean.

Mintegiak: 10 euroko hobaria kreditu bakoitzean.

Ikastaroak (denontzako blokea): 10 euroko hobaria kreditu bakoitzean.

Ikastaroak (praktikaldia): 1,50 euroko hobaria kreditu bakoitzean.

3.3.– Prezioa %25 igo ahal izango da baldin eta ikastaroak ezaugarri bereziak baditu (gai, hizkuntza, dokumentazio eta abarri dagokienez) eta, ondorioz, irakasle eta teknologi bitarteko bereziak eskatzen baditu.

**4. artikulua.**– Epea eta ordaintzeko era.

4.1 Prezio publikoen zenbatekoak matrikula egitean unean ordaindu beharko dira.

4.2. Ordainketa finantza-entitate baten bitartez egingo da.

**AZKEN XEDAPENA**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindua hau.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko otsailaren 24a.

Kultura sailburua,  
MIREN AZKARATE VILLAR.

**Artículo 2.**– Cálculo del importe.

El importe del precio de la matrícula se calculará multiplicando el precio del crédito señalado para la actividad a realizar por el número de créditos asignados al curso.

**Artículo 3.**– Bonificaciones y recargos.

3.1.– A las personas que se inscriban en un congreso con una antelación de 30 días a la fecha de inicio de la actividad, se les aplicará una bonificación de 20 euros por cada crédito.

3.2.– A las personas pertenecientes a una entidad que haya suscrito un convenio de colaboración con la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la impartición de alguna actividad formativa de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco se les aplicará las siguientes bonificaciones:

Congreso: Una bonificación de 10 euros por cada crédito.

Seminario: Una bonificación de 10 euros por cada crédito.

Curso (bloque común): Una bonificación de 10 euros por cada crédito.

Curso (período de prácticas): Una bonificación de 1,50 euros por cada crédito.

3.3.– El precio podrá ser incrementado hasta un 25% en aquellas actividades que por sus peculiares características (respecto al tema, idioma de impartición, documentación, etc.) requieran profesorado y medios tecnológicos especiales.

**Artículo 4.**– Plazo y forma de pago.

4.1 El pago del importe de los precios públicos deberá efectuarse en el momento de formalizar la matrícula.

4.2. El pago se efectuará mediante intermediación de entidad financiera.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de febrero de 2004.

La Consejera de Cultura,  
MIREN AZKARATE VILLAR.